

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1707

349/2024 EBAZPENA, martxoaren 26koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez hutsik uzten den Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuko (PEAZ) Gainbegirale lanpostuaren deialdia.

AURREKARIAK

Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen urtarrilaren 29ko 78/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuko (PEAZ) Gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko (2024ko otsailaren 15eko EHAA 34. Zk.).

Deialdi horretan emandako epearen barruan ez da hautagairik aurkeztu.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta deialdia arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hutsik uztea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuko (PEAZ) Gainbegirale lanpostua betetzeko deialdia. Hutsik uzte horrek Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean eta EHAAan argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2024ko martxoaren 26a.

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentea.

EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria,
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.